




**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

**ELIZA,
JESUSEN
FAMILIA**

A SAIOA
HAURREN KATEKESIA PARROKIAN

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



"Denak apostoluen irakaspenak entzuteari eta elkarte-bizitzari emanak bizi ziren, ogi-zatitzea eta otoitza elkarrekin egiten zituztelarik"
(Eg 2, 42)

1. Helburua

- Eliza Jesusen jarraitzaileen elkartetzat aitortu

2. Helburu bereziak

- Guztiok batera Jesusen familia handia, Eliza, osatzen dugula konturatu.
- Eliza Jesusen adiskideen, jarraitzaileen familia bezala ikusi.

3. Saioak

- A saioa, hurren katekesia parrokian.

4. Aurkituko duzuna

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saioaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

A SAIOA HAURREN KATEKESIA PARROKIA



Motibazioa

- Guztiok batera Jesusen familia handia, Eliza, osatzen dugula konturatu.



Azpimarrak

- Eliza gara, Jesusen jarraitzaile garelako.



Idea nagusiak

- “Denak apostoluen irakaspenak entzuteari eta elkarte-bizitzari emanak bizi ziren, ogi-zatitzea eta otoitza elkarrekin egiten zituztelarik” (Eg 2, 42-47) pasartea da saioko ardatza.
- Eliza osatzen dugun guztiok, Jesusen familia gara.



Saioaren garapena begi-kolpe batean

Jainkoaren Hitza, txatal argitzailea

“Denak apostoluen irakaspenak entzuteari eta elkarte-bizitzari emanak bizi ziren, ogi-zatitzea eta otoitza elkarrekin egiten zituztelarik” Eg. 2, 42




“Tu primera Biblia”, Edebé. pag. 461

Bideoa

Ikusteko, klik egin irudian



Jarduera, “Jesusen familia handia”



Bilketa eta laburpena egiteko proposamena

- Kandela piztu
- Gurutzearen seinalea egin
- Otoitz laburra
 - Zer egin dugu?
 - Zer sentitu dugu?
 - Zer ikasi dugu?



Ezinbesteko lagungarriak

- Eg 2, 42-47 Bibliako pasartea (Edebe, 461. or.)
- Eliza hitza (I. eranskina) – hurrei kopia bana eman
- Jesusen familia (III. eranskina)

Denbora hartu saioaren jardunbidea ulertzeko, eta alde zuretik prestatu saioan behar izango dugun guztia.



Saiorako gida

Katekistarentzat...

Saioa lau unetan banatuko dugu:

- o 1. unea: agurra eta aurkezpena (15 minutu). 1-3 urratsak.
- o 2. unea: gaiaren azalpena (15 minutu). 4-5 urratsak.
- o 3. unea: “Nire parroikia eta familia” jarduera (20 minutu). 6. urratsa.
- o 4. unea: adierazpena eta laburpena (10 minutu). 7-8 urratsak.



Lehen unea. Agurra eta aurkezpena

Katekistak, bildutakoak agurtu ondoren, aurreko gaia gogoratuko du. Guraso eta anai-arrebok osatzen dugun familiaren gaia landu dugu, gune garrantzitsu dela ondorioztatuz. Gaur, beste urrats bat emango dugu, familiaren ikuspuntua zabalduz. Izan ere, nahiz eta odolez sendi ez izan, bestelako lokarrien eraginez, familia bereko kide, familia handi bateko kide izan gaitezke.



1. urratsa. Gaurko saioan, gure familia zabalagoa dela ikusiko dugula azalduko die katekistak hurrei. Aurreko saioan marraztu zuten etxean beste senide batzuk (aiton-amonak, lehengusu-lehengusinak...) marraz ditzatela. Baliteke norbait senide bezala norbait senide bezala maitatzea, nahiz eta, benetan, senide ez izan?

Bateratze-lana: *haur bakoitzak bere etxea erakutsi eta familiako kideak nor diren esango du.*



2. urratsa. Urrats hau emanez, Eliza gure familia dela ikusiko dugu; bertan bizitzeko eta banatzeko ere jabetuko gara. “Eliza” hitzaren irudiaz baliatuko gara bere esanahiaz ohartzeko. Katekistak letrak banatuko dizkie neska-mutikoei eta hauek ordenan jarri behar dituzte, Eliza hitza osatuz (I. eranskina).



3. urratsa. Katekistak dei egingo die hurrei, Eliza hitzak zer esan nahi duen idatz dezaten. Zerbait idatzi edo marraztu dutenean, hitz horren adiera azalduko zaie.

- Eliza hitza grekotik dator eta batzarra, bilera, taldea, herria,... adierazten du... eta guztiok batera osatzen dugu “Jainkoaren Herria”.

Bateratze-lana: *haur bakoitzak bere definizioa batera jarriko du.*



Bigarren unea. Gaiaren azalpena



4. urratsa. Jo dezagun Bibliara, hasierako kristauak nola bizi ziren jakiteko.

- Edebe Bibliako kontaketa (461. or.) edo II. eranskinean jasotako idazkia.



5. urratsa. Idazkia irakurri ondoren, entzundakoan sakonduko dugu ondorengo galderez baliatuz:


- Zer kontaktzen digu Bibliako txatal honek?
- Zer esan nahi digu?

Ondorengo abestia entzun.

Katekistak ondorengo ideiak nabarmenduko ditu:

- Jesusen jarraitzaile guztiok osatzen dugu elkarte.
- Besteekin bat egiteak, banatzeak eta elkarrekin ospatzeak duen garrantzia nabarmendu.

**Ikusteko,
klik egin
irudian**



Hirugarren unea: "Nire parrokia eta familia" jarduera



6. urratsa. Katekistak beren elizaren maketa txiki bana emango die neskato-mutikoei (III. eranskina). Mozten eta margotzen duten bitartean beren parrokiaren eta osatzen duten pertsonen inguruan jardungo dute, katekistak proposatutako ondorengo galderen haritik:

- Nola deitzen da zure parrokia?
- Nor da parrokoa?
- Nork osatzen du parrokia? Izenen bat jakinez gero, esan eta banatutako orrian idatz dezatela.
- Zer egiten da parrokian?
- Zer egiten duzu parrokian?

Maketak egin eta margotu ondoren, elkarrizketan jardungo dugu eta, ondoren, bateratze-lana egingo da eta haur bakoitzak idatzi edo marraztu duena azalduko du.

Katekistak azalduetako ideia nagusiak jasoko ditu, parrokiak gehien baloratu dutena eta parrokiako kideen sendotasunaren erakusle dena.



Laugarren unea: Bilketa eta laburpena



7. urratsa. Hona hemen hain bat galdera, landutakoa jasotzeko:

- Zer egin dugu?
- Zer sentitu dugu?
- Zer ikasi dugu gaur?



8. urratsa. Isilunea egingo dugu. Kandela piztuko dugu, Jesus gure artean dela adierazteko eta gurutzearen seinalea egingo dugu Jesusekin elkartzeko. Gelan (aurreko saioetatik) dugun Jesusen irudiari begiratu eta elkarrekin otoitz egingo dugu:

Kaixo, Jesus:

*Gaur, eskerrak eman nahi dizkizut familia berria, Eliza,
zure jarraitzaileen, zure adiskideen familia,
hobeto ezagutzeko aukera izan dudalako.*

*Eskerrik asko, guztiok Eliza osatzen dugula
eta familia izanik, denok ezinbesteko garelako irakasteagatik.*




*Lagun iezaguzu elkar maitatzen eta zaintzen,
"etxeokoen" egiten dugun bezala, denok baikara "etxeokoen".*

*Eta emaguzu amore eta indarra
beharrizan larrian dagoena gehiago eta hobeto zaintzeko.*

Bihotz-bihotzez eskatzen dizugu.

Amen.

I. Eranskina "Eliza"



II. Eranskina

ITUN BERRITIK HARTUTAKO TXATALA: EG 2, 42-47

Denak apostoluen irakaspenak entzuteari eta elkarte-bizitzari emanak bizi ziren, ogi-zatitzea eta otoitza elkarrekin egiten zituztelarik.

Mundu guztia izaturik zegoen, apostoluek egiten zuten hainbat egintza harrigarri eta mirarirengatik.

Fededun guztiak elkarturik bizi ziren, eta dena denentzat zeukaten: beren lur eta ondasunak saldurik, guztien artean banatzen zuten dirua, nork zer behar zuen.

Egunero bildu ohi ziren tenpluan, baina ogia etxeetan zatitzen zuten, otorduak elkarrekin pozik eta bihotz xaloz eginez. Jainkoa goستن zuten, eta herri osoaren estimazioa zuten. Eta Jaunak egunetik egunera gehitzen zizkion elkarteari salbatzen zirenak.



III. eranskina. "Jesusen familia handia"

